

16/08 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Begoña Garamendi
Juan Carlos Jauregui
Isabel Kapanaga
Mari Tere Ojanguren
Antxon Rodríguez
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko irailaren 22ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Bitxigintzaren Artea familia profesionalaren barruan dagoen Arte Plastikoetako eta Artearen Bitxigintza Diseinuko Goi-mailako teknikari tituluaren curriculuma ezartzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak irakaskuntza artistiko profesionalen barruan sailkatzen ditu arte plastikoetako eta diseinuko ikasketak, eta prestakuntza espezifikoko zikloetan antolatzen ditu, zeintzuen helburua baita ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta arte plastikoen eta diseinuaren sektorean ariko diren etorkizuneko profesionalen gaikuntza bermatzea.

Maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baita arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalen antolamendu orokorra, 5. artikuluan definitzen du arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionaletako tituluaren egitura.

5b artikuluan zehazten du titulu horien profil profesionala, zeinak barne hartuko baititu gaitasun orokorra, gaitasun profesionalak eta, hala badagokio, tituluak barne hartzen dituzten Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionaleko kualifikazioak.

13. artikulua ezartzen du Hezkuntza Administrazioek ezarriko dituztela titulu bakoitzari dagozkion curriculumak, betiere titulu bertan eta titulu bakoitza erregulatzen duen araudian ezarritakoa errespetatuz.

Uztailaren 21eko 1297/1995 Errege Dekretuak Goi-mailako Teknikari tituluak ezartzen ditu Artearen Bitxigintza familia artistikoaren barruko arlo hauetan: Arte Plastikoetan eta Bisuteria Artistikoaren Diseinuan, Bitxigintza Artistikoan, Urregintzan eta Zilargintza Artistikoan. Horrez gain, dagozkien gutxieneko irakaskuntzak onartzen ditu.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 11 artikulua dauzka, 2 xedapen gehigarri, 2 xedapen iragankor, azken xedapen bat eta 5 eranskin.

1. artikulua Dekretuaren xedea eta aplikazio esparrua ezartzen ditu.

2 eta 3. artikuluek tituluaren identifikazioa eta profil profesionala jasotzen dituzte.

4. artikulua testuinguru profesionala arautzen du: esparrua, produkzio sektoreak eta okupazioak.

5. artikulua zikloaren helburu orokorrak ezartzen ditu.

6. artikulua prestakuntza zikloaren sarbideari buruzkoa da.

7. artikulua ezartzen du nola antolatzen eta banatzen diren orduak, eta zehazten du, baita ere, moduluen zerrenda, zeintzuen ordutegiak, helburuak, ebaluazio irizpideak eta edukiak I. eranskinean baitaude.

8. artikulua hainbat jarraibide ezartzen ditu enpresetako prestakuntza praktikoari buruz, zeinaren helburuak, edukiak eta ebaluazio prozesua II. eranskinean baitaude.

9. artikulua amaierako proiektuari buruzkoa da, zeinaren helburuak, edukiak eta ebaluazio prozesua III. eranskinean baitaude.

10. artikulua dio zein irizpide baloratuko diren Arte Plastikoetako eta Bitxigintza Artistikoen Diseinuko Goi-mailako Teknikari titulu eskuratzeko, eta baita ere zein ikasketatara sartu daitekeen titulazio hori edukita.

11. artikulua aipatzen du zein den ikasketa hauek eskaintzen dituzten ikastetxeek espazio eta ekipamendu aldetik bete behar duten araudia.

Lehen Xedapen Gehigarria ezgaitasunak dituzten pertsonen sarbideari buruzkoa da. Bigarrenak genero berdintasuna bermatzeko neurriak aipatzen ditu.

Aldi-baterako lehen xedapenak adierazten du ikasketak progresiboki ezarriko direla 2016-2017 ikasturteik aurrera, eta bigarrena ikasketa horiek egiten ari diren ikasleei buruzkoa da.

Azken Xedapenak adierazten du noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektu honen xedea da Arte Plastikoetako eta Bitxigintza Artistikoaren Diseinuko Goi-mailako Teknikari tituluari dagozkion Ikasketa Artistiko Profesionalen curriculumak ezartzea Euskal Autonomi Erkidegoan.

Lehen Xedapen Iragakorrak dio dagoeneko hasita dagoen 2016-2017 ikasturtean ezarriko dela irakaskuntza hauen lehen kurtsoa. Kontseiluak ohartarazi du hobe zatekeela Dekretu proiektu hau azkarrago tramitatu balitz eta araua argitaratuta egon izan balitz ikasturtea hasi baino lehen.

2013an Kontseiluak hainbat irizpen eman zituen Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-mailako teknikari titulu desberdinen curriculumak ezartzen dituzten dekretuei buruz. Irizpen haietan adierazi zuen arautu gabe gelditu zirela zenbait alderdi orokor, esaterako, ebaluazioa eta promozioa, ikasketetan sartzeko irizpideak, edota sarrera froga egiteko salbuespenak.

Horregatik oso positibotzat jotzen du Dekretu hau, zeinaren bidez arautzen baita EAEko ikastetxeetan Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza artistiko profesionalak egiten dituzten ikasleen ebaluazio prozesua, akreditazio akademikoa eta ikasleen mugikortasuna (Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 24ko irizpena).

Ondorioz, ebaluazioari eta salbuespenei buruzko artikulua ez daude proiektu honetan jasota.

Bestalde, sarrera probari buruzko informazio guztia Hezkuntzako Berrikuntza zuzendariaren otsailaren 23ko Ebazpenean dago, zeinaren bidez arautzen baitira Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntza Profesionalen Goi-mailako prestakuntza zikloetara sartzeko probak eta ikasleak onartzeko prozedurak, eta ziklo horietarako sarrera probetarako deialdia egiten baita 2016/17 ikasturterako.

Gainera, aipatu irizpen horietan Kontseiluak ohar bat egin zuen gaitasun profesionalari buruz: *“kritikoki aztertu eta baloratu behar dira sexu desberdintasunak, eta berdintasun erreal eta eraginkorra sustatu emakume eta gizonen artean”*. Izan ere, Kontseiluaren iritziz, gaitasun profesionala bada, esplizituki jaso behar litzateke curriculumean, bai moduluetakoko baten edukietan, eta baita ere ebaluazio irizpideetan, eta lehen ez zen halakorik jasotzen.

Horregatik, positibotzat jotzen du alderdi hori txertatu izana argitaratu diren curriculumetan eta dekretu proiektu honetan, zehazki, *“Enpresa eta ekimen ekintzaile”* moduluan, edukietan eta ebaluazio irizpideetan.

Hala ere, Kontseiluak beste alderdi batzuk nabarmendu nahi ditu:

- Kontseiluaren iritziz, 1. artikuluko (Xedea eta aplikazio esparrua) 2 eta 3. atalak ez datoz bat artikulua izenburuarekin. Beraz, aparteko artikulua bat izan litezke edo 7. artikuluan (Orduen antolakuntza eta banaketa) sartu, *“Curriculumaren antolakuntza”* azpi-tituluarekin.
- Lehen esan bezala, nahiz eta badagoen sarrera probari eta onarpenari buruzko guztia jasotzen duen Ebazpen bat, Kontseiluaren ustez, prestakuntza ziklorako sarbideari buruzko 6. artikuluan zehaztu beharko lirateke irakaskuntza hauetara sartzeko bete behar diren baldintza orokorrak.

- Kontseiluak uste du irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena biltzen dituen artikulua bat falta dela, eta behar dituzten titulazioak aipatu behar direla, gainerako tituluekin gertatzen den bezala.
- Kontseiluak uste du prestakuntza praktikoari eskainitako ordu kopurua (25) eskasa dela, gainerako espezialitateekin alderatuta (200). Ulertzen dugu sortu berria dela eta ezin dela bermatu ordu kopuru handiagoa, baina hobetu beharreko alderdi bat da.
- Bigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoari dagokionez, Kontseiluak berriro proposatu du aurreko irizpenetan proposatu zuena, uste baitu idazkera nahasgarria dela. Zehazki eskatzen zuen “kalitate printzipioei” egiten zaien erreferentzia kentzeko eta “hezkuntza proiektua” hitzekin ordezkatzeko, honela:

“Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen II. Tituluko III. kapituluko lehen atalean adierazitakoari jarraiki, ikastetxeek beharrezko neurriak sartuko dituzte beren hezkuntza proiektuan, neurri horien bidez bermatzeko ikasleen sarbidea, ikaskuntza prozesua eta bereziki enpresetako praktikaldia genero baldintzapenik eta balore sexistarik gabe egingo direla.”

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2016ko irailaren 22an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana